# BASES SORTEO DE LA 12ª CAMPAÑA DE PROMOCIÓN COMERCIAL DEL PEQUEÑO Y MEDIANO COMERCIO DE BARAÑAIN 2019/20

## ¡¡Premios CON SUMO gusto en Barañain!! EROSKETA-SARIAK poz-pozik Barañaindik!!

### 1. DESCRIPCIÓN DE LA CAMPAÑA

Siguiendo en la línea de actuación desarrollada por el **Ayuntamiento de Barañain** de promocionar y mejorar la competitividad de los pequeños y medianos comercios del municipio, se inicia la 12ª Campaña, con el objeto de premiar la fidelidad de clientes y consumidores del comercio de Barañain.

El eje fundamental de la Campaña es la realización de un sorteo de **seis premios** aportados por el Ayuntamiento de Barañáin. Los seis premios consisten en gastarse libremente 200 euros en un día en los comercios participantes. Toda persona que compre en un comercio de Barañain, recibirá boletos por parte del comercio para participar en un sorteo **abierto al público** que se realizará en el **salón de "Usos Múltiples"** del Ayuntamiento de Barañain **el jueves 16 de enero de 2020 a las 20:30 p.m.**

Por cada **15 euros** de compra en un establecimiento adherido a esta campaña, el comercio entregará al cliente una parte del boleto para que este lo guarde. Sólo se consideran válidas las papeletas originales, siendo nula cualquier copia. Cabe recordar que los seis premios de 200 euros no son económicos, sino que la persona premiada deberá gastarlo en un sólo día en los establecimientos participantes en la campaña que han entregado boletos durante su desarrollo.



55.000

12ª Campaña Navideña Comercial

2019/20

Gabonetako

12. Merkataritza Kanpaina

☎ ...............................

Ayuntamiento de Barañáin
Barañaingo Udala

55.000

12ª Campaña Navideña Comercial 2019/20

Gabonetako 12. Merkataritza Kanpaina

| Sorteo de 6 premios de 200 € | 200 €-ko 6 sari zozketatuko dira |
|---|---|
| **IMPORTANTE:** Escriba su nº de teléfono ☎ a la izquierda del boleto | **ERNE:** txartelaren ezkerraldean idatzi zure telefono zenbakia ☎ |
| El sorteo público será el **16 enero a las 20:30** en el salón usos múltiples del Ayuntamiento. ☎**948286310 / ☎948012012** telecentro@baranain.com | Zozketa publikoa **urtarrilaren 16an, 20:30ean** izanen da, Udaletxeko erabilera askotariko aretoan. ☎**948286310 / ☎948012012** telecentro@baranain.com |

Una vez realizado el sorteo el Ayuntamiento comunicará por escrito a cada comercio informando de los números premiados y cuáles han sido los comercios que sellaron los 6 boletos premiados. Los premios **caducan y se entregan el día 29 de enero del 2020**. La organización puede solicitar a los ganadores realizarles fotografías y/o vídeos vinculados al premio para ser exhibidos en medios de comunicación. Los comercios participantes en el sorteo objeto de la presente Campaña, se regirán por las presentes Bases.

### 2. PREMIO

El premio será personal e intransferible. En el caso de que el premio recayera en un menor de edad, se entregará al menor acompañado de su tutor o representante legal, o bien en ausencia del menor a su representante legal. El premio se entregará al agraciado en las condiciones descritas, y sin que comporte obligación de realizar ninguna contraprestación adicional a las establecidas en las presentes Bases de conformidad con la legislación aplicable.

### 3. BOLETOS.

Serán puestos a disposición de los comercios participantes un total de 55.000 boletos. Los boletos disponen de dos partes diferenciadas, la parte del boleto que se desprende será entregada al cliente para que lo guarde y compruebe en su momento si ha sido premiado/a; y la parte que se queda unida al talonario será la que recoja personal del Ayuntamiento a partir del 7 de enero para realizar el sorteo.

## 4. PARTICIPACION.

Los comercios participantes en la presente Campaña serán todos aquellos pequeños y medianos comercios de Barañain que así lo deseen. Los boletos serán entregados, por los siguientes medios:

1) El propio Ayuntamiento repartirá personalmente a cada comercio interesado en participar los boletos, bases y carteles de la campaña.
2) En cualquier caso, pueden solicitarlo directamente al Ayuntamiento ☎ 948286310 o en el Telecentro Municipal (1ª planta de la Biblioteca Pública Barañain–Lurgorri, 12-14- ☎ 948197295), desde el día **1 de diciembre de 2019** hasta el día **6 de enero 2020,** ambos inclusive, con el compromiso de respetar las presentes Bases. Tengan en cuenta los días festivos y posibles vacaciones para pedir boletos con antelación.

El Ayuntamiento entregará boletos a cuantos comercios se personen hasta fin de existencias. Con los boletos y las bases, se hará entrega de los carteles de la Campaña que obligatoriamente deberán **instalarse en lugar visible de sus establecimientos**.

## 5. DISTRIBUCIÓN DE BOLETOS A LOS CLIENTES POR SUS COMPRAS.

Los comercios distribuirán a los clientes, un boleto por cada **15 euros** de compra **(15 €)**, desde el **1 de diciembre 2019 al 6 de enero 2020 ambos inclusive.** Si dentro de dicho periodo un comercio hubiese agotado sus boletos, deberá mantener el cartel de la campaña y podrá solicitar más boletos si los hubiera. La participación en la Campaña lleva implícito la aceptación de las Bases.

## 6. EXCLUSIONES DE PARTICIPACION

Los titulares de los comercios participantes, sus cónyuges y familiares directos, así como los empleados de los mismos, podrán participar en la campaña siempre que el boleto sellado no sea del mismo donde trabajen o sean propietarios. Cuando el agraciado sea un menor de edad, el premio se entregará al tutor (padre o madre) o representante legal, el cual deberá acreditar dicha condición.

## 7. SORTEO

Se realizará un sorteo **abierto al público** en el salón de “Usos Múltiples” del Ayuntamiento de Barañain el jueves **16 de enero de 2020 a las 20:30 h.** Se extraerán tantos boletos como premios. Posteriormente, el Ayuntamiento publicará y notificará qué números han sido los premiados y en qué comercios han sido sellados los 6 boletos. El Ayuntamiento enviará a las personas premiadas un mensaje a través del 012 y además intentará localizarlas telefónicamente. Se realizarán tres llamadas, a distintas horas. Si realizadas las 3 llamadas no fuere localizada, se localizará al suplente 1º de dicho premio, operándose del modo descrito.

Dicha información se colocará en un lugar visible de los establecimientos participantes, se publicará en la página web municipal y se comunicará a medios de difusión. Las personas agraciadas dispondrán hasta **29 enero 2020 para acudir al acto de entrega** de premios presentando el boleto premiado.

| Ayuntamiento Barañain (1º, 2º, 3º, 4º, 5º y 6ªpremio)<br>Teléfonos Ayuntamiento para entrega del premio: ☎ 948012012 / ☎ 948286310 | | |
|---|---|---|
| **1º Premio: Sellado por “”** | **2º Premio: … Sellado por “……”** | **3º Premio: …Sellado por “……”** |
| **4º Premio: …. Sellado por “……”** | **5º Premio: ….Sellado por “……”** | **6º Premio: ….Sellado por “……”** |

*Cartel que debe colocar el establecimiento comercial en un lugar visible y que enviara el Ayuntamiento tras el sorteo*

## 8. ACTO DE ENTREGA

El acto de entrega se realizará a las **20:30 h. el 29 enero de 2020**, en el Ayuntamiento de Barañain. En dicho acto, el premiado/a acudirá para recoger el premio, y mostrará el boleto premiado. La incomparecencia al acto de entrega determinará que el premio quede vacante, salvo ausencia justificada previamente, y será así declarada tras su asistencia a dicho acto, trasladando el premio a una organización no gubernamental (ONG) y/o entidad social registrada en Barañain y en las mismas condiciones que el resto de los premiados/as. Terminado el acto de entrega, queda cerrada la campaña a todos los efectos, y no podrá ser atendida reclamación alguna por ningún motivo.

En el momento se sepa el nombre de las personas ganadoras se publicará en los medios de comunicación locales y municipales (Página web municipal, Vivir en Barañain, Plazaberri, Comercios…)

A las presentes Bases y Campaña le será de aplicación la legislación vigente al respecto. En todo lo no previsto, el Ayuntamiento de Barañain podrá resolver o establecer el criterio aplicable, inspirando la solución en el espíritu de la Campaña.

# BARAÑAINGO SALTOKI TXIKI ETA ERTAINAK BULTZATZEKO 12. MERKATARITZA KANPAINAKO ZOZKETAREN OINARRIAK - 2019/20

¡¡Premios CON SUMO gusto en Barañain!! EROSKETA-SARIAK poz-pozik Barañaindik!!

## 1. KANPAINAREN DESKRIPZIOA

**Barañaingo Udalak** udalerriko saltoki txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzeko eta sustatzeko garatzen duen lan-ildoari jarraikiz, 12. kanpaina jarri da abian, Barañaingo saltokien bezeroen eta kontsumitzaileen leialtasuna saritzeko asmoz.

Kanpainaren ardatz nagusia zozketa bat da, Barañaingo Udalak emandako **sei sari** banatuko dituena. Sari bakoitzak 200 euroko balioa du, parte hartzen duten saltokietan egun bakar batean nahi erara gastatu beharrekoak. Barañaingo saltokiren batean erosketaren bat egiten duen pertsona guztiek txartelak jasoko dituzte, saltokiak berak emanak, zozketa batean parte hartzeko; zozketa Barañaingo udaletxeko **erabilera anitzeko aretoan eginen da, 2020ko urtarrilaren 16an, ostegunean, 20:30ean, eta zabalik izanen da bertaratzeko aukera**.

Kanpaina honekin bat egindako establezimendu batean erostean, bezeroak txartel baten zati bat jasoko du erosketan gastatutako **15 euroko** kopuru bakoitzeko, gorde beharko duena. Ez da kopiarik onartuko, hau da, jatorrizko txartelak besterik ez du balio. Kontuan hartu 200 euroko sei sariak ez direla dirutan emanen, baizik eta irabazleak diru kopuru hori gastatu beharko duela egun bakar batean kanpainan zehar txartelak banatu dituzten establezimenduetan.




Zozketa egin eta gero, Udalak idatziz jakinaraziko die saltokiei zein diren saritutako zenbakiak eta zer saltokitan zigilatu diren saritutako 6 txartelak. **Sariak 2020ko urtarrilaren 29an eman, eta egun horretantxe iraungiko dira**. Antolakuntzak sariari lotutako argazkiak eta/edo bideoak egitea eska diezaieke irabazleei komunikabideetan erakusteko. Honako oinarri hauek arautuko dute saltokien parte-hartzea kanpaina honetako zozketan:

## 2. SARIA

Saria pertsonala eta besterenezina izanen da. Saria adingabe batek eskuratzen badu, bere tutorea edo legezko ordezkaria ere aurrean dela emanen zaio adingabeari, edo legezko ordezkariari emanen zaio adingabea ez bada bertaratzen. Saria deskribatutako baldintzen arabera emanen zaio saridunari, eta ez da inolako ordainsari gehigarririk emanen oinarri hauetan ezarritakoez aparte, aplikagarria den legeriarekin bat.

## 3. TXARTELAK

Guztira 55.000 txartel jarriko dira parte hartzen duten saltokien esku. Txartelak bi zati ditu; bata, moztu eta bezeroari emanen zaiona, hark gorde eta ikus dezan, bere garaian, saritua izan ote den; bestea, taloitegian itsatsita geratzen dena, Udalak jasoko duena –urtarrilaren 7tik aurrera– zozketa egiteko.

## 4. PARTE HARTZEA

Hala nahi duten Barañaingo saltoki txiki eta ertain guztiek parte hartzen ahal dute kanpaina honetan. Txartelak honako bide hauetatik banatuko dira:

1) Udalak berak emanen dizkio parte hartu nahi duen saltoki bakoitzari kanpainaren txartelak, oinarriak eta kartelak.
2) Hala eta guztiz ere, Udalari eskatzen ahal zaizkio zuzenean ☎ 948 28 63 10 edo Udal Telezentroan (Barañain–Lurgorri liburutegi publikoaren 1. solairuan, 12-14 ☎ 948 19 72 95), **2019ko abenduaren 1etik 2020ko urtarrilaren 6ra arte**, biak barne, honako oinarri hauek errespetatzeko konpromisoa emanda. Kontuan hartu jaiegunak eta balizko oporraldiak txartelak eskatzeko orduan.

Udalak bertaratzen diren saltoki guztiei emanen dizkie txartelak, horiek agortu arte. Txartel eta oinarriekin batera, kanpainaren kartelak ere emanen dira, eta horiek **establezimenduetan jarri beharko dira derrigorrez, ongi ikusteko moduan**.

## 5. TXARTELAK BEZEROEI EMATEA EROSKETENGATIK

Saltokiek txartel bat emanen diete bezeroei eginiko erosketan gastatutako **15 euro (15 €) bakoitzeko, 2019ko abenduaren 1etik 2020ko urtarrilaren 6ra arte, biak barne.** Saltokiren bat txartelik gabe geratuko balitz, kanpainaren kartela bere horretan utzi beharko luke ikusgai, eta txartel gehiago eska litzake, halakorik balego. Kanpainan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea.

## 6. PARTE HARTZEAREN MUGAK

Parte hartzen duten saltokien titularrek, ezkontideek eta familiar zuzenek, baita langileek ere, kanpainan parte har dezakete baldin eta zigilutako txartela beste saltoki batekoa bada (ez lan egiten duten edo beren jabetzako saltokikoa). Irabazlea adingabe bat bada, saria tutoreari (aita edo ama) emanen zaio edo legezko ordezkariari, baldintza hori betetzen duela frogatu eta gero.

## 7. ZOZKETA

Zozketa Barañaingo udaletxeko “erabilera anitzeko” aretoan eginen da, **2020ko urtarrilaren 16an,** ostegunean, **20:30ean, eta zabalik izanen da bertaratzeko aukera.** Sari adina txartel aterako dira. Gero, Udalak argitaratuko eta jakinarazitako ditu saritutako zenbakiak, zer saltokitan zigilatu diren eta telefono bat, saridunek dei dezaten saria jaso ahal izateko. Udalak mezu bat bidaliko die saridunei 012 zerbitzuaren bidez, eta, gainera, telefonoz kontaktuan jartzen saiatuko da. Hala, hiru dei egingo ditu, eguneko ordu ezberdinetan. Hirugarren deia egin eta erantzunik ez badu jasotzen, zerrendan dagoen lehenengo ordezkoari deituko dio, erabili den prozedura berberarekin

Informazio hori parte hartu duten saltokietan jarriko da, ongi ikusteko moduan; halaber, Udalaren webgunean ere argitaratuko da, eta komunikabideei jakinaraziko zaie. Sarituak izan diren pertsonek **2020ko urtarrilaren 29ra arte izanen dute epealdia, sariak banatzeko eginen den ekitaldira arte**, saritutako txartela erakutsiz.

| Barañaingo Udala (1., 2., 3., 4. 5. eta 6. saria)<br>Udalaren telefonoa saria emateko: ☎ 948012012 / ☎ 948286310 / ☎ 948197295 | | |
|---|---|---|
| **1. saria: ..Saltoki honek zigilatuta:** | **2. saria: Saltoki honek zigilatuta:** | **3. saria: Saltoki honek zigilatuta: ”** |
| **4. saria: Saltoki honek zigilatuta:** | **5. saria: Saltoki honek zigilatuta:”** | **6. saria: Saltoki honek zigilatuta:** |

*Merkataritzako establezimenduak ongi ikusteko moduan jarri beharreko kartela, Udalak zozketaren ondoren bidaliko duena*

## 8. SARIAK EMATEKO EKITALDIA

Sariak emateko ekitaldia Barañaingo udaletxean eginen da, **2020ko urtarrilaren 29an, 20:30ean**. Ekitaldi horretan, sariduna saria jasotzera joanen da, eta saritutako txartela erakutsiko du. Emateko ekitaldira joan ezean, saria eman gabe geldituko da, non ez den aurretik justifikatu ez zegoela joaterik, eta horrela adieraziko da ekitaldian saridunaren berririk izan ezean; hala gertatuz gero, gobernuz kanpoko erakunde (GKE) bati emanen zaio saria, gainerako saridunen baldintza berberetan. Sariak emateko ekitaldia bukatuta, kanpaina itxi eginen da ondorio guztietarako, eta ez da inolako erreklamaziorik onartuko inongo arrazoirengatik.

Pertsona irabazleen izena jakin bezain laster, tokiko eta udaleko komunikabideetan argitaratuko da (Udalaren webgunea, Vivir en Barañain, Plazaberri, saltokietan…).

Honako kanpaina honi eta bere oinarriei gaiari buruzko indarreko legeria aplikatuko zaie. Oinarrietan aurreikusita ez dagoen guztiari begira, Barañaingo Udalak erabakiko edo ezarriko du aplikatu beharreko irizpidea, konponbidea kanpainaren espirituarekin bat bilatuz.